

90 URTE

1926an, orain dela 90 urte, Antxon Bandresek "Federación Vasco-Navarra de Alpinismo" izenez sortutako erakundeak burutzen zituen jarduerak Pyrenaica aldizkarian argitaratzeko ideia izan zuen. Lehen aleak 48 orrialde izan zituen, prezioa 50 zentimo eta mila ale baino gutxiagoko tirada. Argitaratze-aurrezpenean honako hau idatzi zuen: "guztion artean idatziko dugun oroimen kolektiboa izango da". Handik gutxira, 1928ko apirilaren 12an, Madrilgo Jabetza Intelektual eta Komertzial-erregistroan inskribatu zuten.

Bandresek burua altxatuko balu, harri eta zur geratuko litzateke berak sortzen lagundu zuen federazio apal hura, egungo Euskal Mendi Federazioa zertan bilakatu den ikusita: urte hauetan guztietan, 30.000 kide baino gehiago osatzen duen kolektibo horretatik munduko gailurrik altuenak eta ospetsuenak igo dituzten gizon eta emakumeak daude, eskaladan ere mailarik gorenera iritsitakoak, eta azken garai hauetan sortu diren mendi lasterketak bezalako modalitate berrietan puntan dabilen beste asko. Pyrenaica aldizkariak izan duen bilakaerarekin ere harrizko litzateke zalantzarik gabe: hiruhilero argitaratzen den aldizkariak duen 26.500 aleko tirada, webgune eta sare sozialetan (facebook eta blogak) duen presentziarekin osatzen da.

1926 urtetik hona, mendian burutzen diren jarduerak asko aldatu dira eta zer esanik ez hauek gizarteratzeko formatuak. Pyrenaica aldaketa hauetara egokitu izan da beti. Mendizaleen kolektiboaren baldintzarik gabeko sostenguari esker, bidean sorturiko zailtasunak gainditu eta urteak betetzen joan da, batzuk oso larriak, argitalpena etetea eragiteraino: 1936ko Gerra Zibilean eta 1967an, arrazoi politikoak zirela medio, Andeetara eginiko espedizioaren ondoren. Hala ere, gaur egun arte jatorrizko izaera mantendu ahal izan du: parte-hartzailea eta euskal mendizaletasunaren idatzizko memoria izateko bokazioa, besteak beste. Artikulu egile, erredakzio batzorde eta zuzendaritzako kide desinteresatuei esker, aldizkariak aldioro bere edukiak berri izan ditu garai bakoitzeko ohiturak eta mendian izandako lorpenak islatuz eta, azken etapan, irakurleekin harreman zuzena edukitzeko formatu digitalak gehituz.

Orain, 2016 urtean, kolektiboki idatzitako mendizaletasunaren 90 urteko historia ospatzeko, Pyrenaicako egungo taldeak aldizkariaren itxura aldatzea erabaki du, beti ere garai berrietara egokitu eta etorkizunari begiratzeko irudi berria landuz. Bere formatu digitalen garapenarekin batera, transformazio berri bat suposatzen du XXI. mendeko Pyrenaicaren eta gure oinarritzko konpromezuaren zerbitzura: oinordetzan hartu genuen aldizkaria zaindu eta hurrengo belaunaldiei ondare aberatsa utzi.

PYRENAICAKO
ZUZENDARIA

Luísa Alonso Cires

NOVENTA
AÑOS

Hace 90 años, en 1926, Antxon Bandrés tuvo la idea de publicar las actividades montaÑeras que se realizaban en la recién constituida Federación Vasco-Navarra de Alpinismo en una revista a la que llamó Pyrenaica. El primer número tenía 48 páginas, costó 50 céntimos y su tirada no llegó a mil ejemplares. En el editorial de presentación se decía: "será la memoria colectiva que vamos a escribir entre todos". Poco después, el 12 de abril de 1928, se inscribió el nombre Pyrenaica en el Registro de la Propiedad Industrial y Comercial de Madrid.

Si Bandrés levantara la cabeza se asombraría al ver que aquella pequeña federación que ayudó a fundar se ha convertido en la actual Euskal Mendizale Federazioa - Federación Vasca de Montaña (EMF-FVM), un colectivo de más de 30.000 personas del que han salido hombres y mujeres que han conseguido ascender las cimas más prestigiosas del mundo, han llegado al máximo nivel en escalada y destacan en las nuevas modalidades, como las carreras por montaña. Y se quedaría impresionado con la evolución de Pyrenaica, convertida en una revista trimestral con una tirada de 26.500 ejemplares, complementada con una web, una página facebook y dos blogs para mantener al día la información.

Mucho han cambiado las actividades en la montaña desde 1926 y los formatos para divulgarlas aún más. A todo se ha adaptado Pyrenaica. Gracias al apoyo incondicional del colectivo montaÑero, ha ido cumpliendo años a pesar de las dificultades surgidas, algunas tan graves como las que generaron las dos interrupciones de su publicación: con ocasión de la guerra civil en 1936 y por motivos políticos, tras la expedición a los Andes, en 1967. Y lo más singular es que ha llegado a nuestros días manteniendo las señas de identidad originarias: su voluntad de ser la memoria escrita del montaÑismo vasco y su carácter participativo. Con el trabajo desinteresado de articulistas, equipo de redacción y dirección, la revista ha ido renovando progresivamente sus contenidos para reflejar los hábitos y conquistas montaÑeras en cada época y, en la última etapa, ha incorporado los formatos digitales para mantener un contacto inmediato con sus lectores y lectoras.

Ahora, en el 2016, para celebrar 90 años de historia montaña escrita colectivamente, el equipo actual de Pyrenaica hemos decidido renovar la apariencia de la revista, buscando una imagen que la sitúe en el tiempo en que vivimos y que la prepare para el futuro. Junto al mantenimiento activo de sus formatos digitales, supone una nueva transformación al servicio de la Pyrenaica del siglo XXI y de nuestro principal compromiso: cuidar la revista que heredamos y dejar un buen legado a futuras generaciones.